

**TELEKOMUNIKAZIO-  
SAREETAKO INSTALAZIO  
IRRATI-ELEKTRIKOEN  
EREDUZKO ORDENANTZA  
ERREGULATZAILEA**

**ORDENANZA TIPO REGULADORA  
DE LAS INSTALACIONES  
RADIOELÉCTRICAS  
PERTENECIENTES A LAS REDES  
DE TELECOMUNICACIONES**

**HITZAURREA**

Telekomunikazioen merkatuaren liberalizazioaren eraginez azkar hazi dira kalitatezko zerbitzua egiteko beharrezkoak diren telekomunikazioko elementu guztiak. Telekomunikazio-zerbitzuek lurraldean eragin zuzena duten azpiegiturak behar dituzte. Zientzia eta Teknologia Ministerioak onartutako operadoreen ezarpen-prozesuak eta merkatuaren gorakada azkarrak nolabaiteko disfuntzioak eragiten ari dira eta disfuntzio hauen ondorioz beharrezkoa da Toki Administrazioak prozesu honetan esku hartzea.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25, 26 eta 28. artikuluetan eta hirigintza eta ingurumen arloko arauetan onartzen diren aginpideen indarrez esku hartu behar dute udalerriek prozesu honetan.

**PREÁMBULO**

La liberalización del mercado de las telecomunicaciones ha comportado el rápido crecimiento de todos aquellos elementos de telecomunicación necesarios para prestar un servicio de calidad. Los servicios de telecomunicaciones requieren de una infraestructura que afecta directamente al territorio. El proceso de implantación de los diferentes operadores, autorizado por el Ministerio de Ciencia y Tecnología, y el rápido crecimiento del mercado, está creando algunas disfunciones que provocan la necesaria intervención de la Administración Local en este proceso.

Los municipios han de intervenir en este proceso en función de las competencias reconocidas en los arts. 25, 26 y 28 de la Ley 7/1985 de 2 de Abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y normativa urbanística y ambiental.

Ordenantza honetan biltzen den udal-arautzearen kalterik gabe, erabat eta nahitaez aplikatu beharko dira telekomunikazioen sektorea arautzen duen sektoreko berariazko arauak; gaur egun ondokoak dira: Telekomunikazioen 11/1998 Lege Orokorra, apirilaren 24koa; 1/1998 Errege Dekretu Legea, otsailaren 27koa; 11/1998 Legearen II. Tituluaren garapen-araudia onartzen duen 1651/1998 Errege Dekretu Legea, ekainaren 24koa; 11/1998 Legearen III. Tituluaren garapen-araudia onartzen duen 1736/1998 Errege Dekretua, uztailaren 31koa; Telekomunikazio-azpiegitura komunei buruzko 279/1999 Errege Dekretua, otsailaren 22koa; eta arlo honetako mota guztietako instalazio eta ekipoei buruzko araudiak eta zehaztapenak.

Arlo honen antolamenduan gogoan izan behar da jendea orokorrean 0 Hz eta 300 GHz arteko eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruz 1999ko uztailaren 12an Europar Batasuneko Kontseiluak emandako gomendia (1999/519/CE).

Aintzat hartu behar diren aginpideen azterketa juridikoari jarraituta, nabarmendu behar da Telekomunikazioen 11/1998 Lege Orokorren 62. artikulua ezartzen duenaren arabera Gobernuari dagokiola jabari irrati-elektriko publikoaren kudeaketa eta onar daitezkeen emisio irrati-elektrikoaren mailak zehazteko prozeduren arauzko garapena, besteak beste.

Sin perjuicio de la regulación municipal contenida en esta ordenanza, será plenamente aplicable y de obligado cumplimiento la normativa sectorial específica reguladora del sector de las telecomunicaciones, constituida en la actualidad básicamente por la Ley 11/1998 de 24 de Abril General de Telecomunicaciones, el RDL 1/1998 de 27 de Febrero, el RDL 1651/1998 de 24 de Julio que aprueba el Reglamento de desarrollo del Título II de la Ley 11/1998, el RD 1736/1998 de 31 de Julio por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo del Título III de la L 11/1998 y el RD 279/1999 de 22 de Febrero sobre infraestructuras comunes de telecomunicación así como las reglamentaciones y especificaciones técnicas relativas a las distintas clases de instalaciones y equipos de esta índole.

Parece oportuno recordar en la ordenación de esta materia, el contenido de la Recomendación del Consejo de la Unión Europea de 12 de Julio de 1999, relativa a la exposición del público en general a campos electromagnéticos de 0 Hz a 300 GHz (1999/519/CE).

En el análisis jurídico de las competencias que deben ser consideradas hay que señalar que el art. 62 de la Ley 11/1998 de 24 de Abril General de Telecomunicaciones, señala que corresponde al Gobierno la gestión del dominio público radioeléctrico y el desarrollo reglamentario, entre otros aspectos, de los procedimientos de determinación de los niveles de emisión radioeléctrica tolerables.

Bestalde Europar Batasuna ikerketa-arloko ekintzak ari da bideratzen eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak "Ingurumena eta Osasuna" izeneko estrategiari hasiera ematea erabaki du. Estrategia hau Ingurumenari buruzko Seigarren Programa Europarraren (2001-2010) barruan biltzen da.

Europa mailan indarrean dagoen araudiari dagokionez, Normalizazio Elektroteknikoaren Europar Batzordearen ENV 50166-2 aurrearauean eta Normalizazio eta Egiaztapeneko Espainiako Elkartearen (AENOR) UNE-ENV 50166-2 arau esperimentalean jasotzen dira, frekuentzia irrati-elektrikoetarako, eremu elektromagnetikoan egoteari buruz jendearentzat orokorrean onartzen diren gehieneko mailei buruzko gaur egungo gomendioak –Telekomunikazio Arauetarako Europar Institutuak (ETSI) onartzen dituenak–.

Nazioarte-mailan, Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) eremu elektromagnetikoek pertsonengan duten eraginari buruzko azterketa-proiektu batean hartzen du parte. Proiektu honek "(1996-2005) CEM Nazioarteko Proiektua" izena du.

Horrenbestez, ordenantza tresna baliagarria izango da mota honetako instalazioek bete beharko dituzten baldintza teknologikoak, ingurumena babesteko baldintzak, segurtasun-baldintzak edo hirigintza-baldintzak ezartzeko. Izan ere, mota honetako instalazioetarako baimena ematerakoan alderdi hauek kontrolatuko dira.

Por su parte, la Comunidad Europea está desarrollando acciones en materia de investigación y desde la Dirección General de Medio Ambiente se ha considerado interesante abrir una estrategia denominada "Medio Ambiente y Salud" que se encuadra dentro del Sexto Programa Europeo de Medio Ambiente (2001-2010).

En cuanto a la normativa vigente en el ámbito europeo, las recomendaciones que existen, reconocidas por el Instituto Europeo de Normas de Telecomunicaciones (ETSI), sobre los niveles máximos de exposición admisibles para el público en general a campos electromagnéticos, para las frecuencias radioeléctricas, están recogidas en la prenorma europea ENV 50166-2, del Comité Europeo de Normalización Electrotécnica (CENELEC) y norma experimental UNE-ENV 50166-2, de la Asociación Española de Normalización y Certificación (AENOR).

A escala internacional, la Organización Mundial de la Salud (OMS) participa en un proyecto de estudio sobre los efectos de los campos electromagnéticos en las personas, el denominado "Proyecto Internacional CEM (1996-2005)".

Con todo, la ordenanza es un instrumento válido para establecer condiciones tecnológicas, de protección ambiental y de seguridad o urbanísticas que tendrán que cumplir este tipo de instalaciones mediante el control sometido a licencia de este tipo de instalaciones.

## I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### **1. artikulua.- Helburua**

Ordenantza honek Zieko-ko udalerrian instalazio irrati-elektrokoek beren kokapen, instalazio eta funtzionamendurako bete behar dituzten baldintzak arautzea du helburu. Ordenantza honen bitartez instalazio irrati-elektrokoek ahalik eta espazio gutxien har dezaten, ahalik eta ikus-eragin txikiena izan dezaten eta ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izan dezaten lortu nahi da.

#### **2. artikulua.- Aplikazio esparrua**

1.- Ordenantza hau 0 Hz eta 300 GHz<sup>1</sup> bitarteko frekuentzia-tartean eremu elektromagnetikoak sor ditzaketen antenak dituzten eta udalerrian kokatuta dauden irrati-frekuentziako instalazio guztiei aplikatuko zaie.

2- Ondoko ezaugarriak betetzen dituzten irrati-amateurren antena gisa katalogatuta dauden antenak salbuetsita daude:

---

<sup>1</sup> Jendea orokorrean eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruzko 1999ko uztailaren 12ko Kontseiluaren gomendioari jarraituz. 1999ko uztailaren 30eko L199 zenbakiko aldizkari ofiziala.

## TÍTULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

#### **Artículo 1. Objeto**

El objeto de esta ordenanza es regular las condiciones a las que se están sometiendo la ubicación, instalación y el funcionamiento de las instalaciones radioeléctricas en el término municipal de Elcigo para que su implantación produzca la menor ocupación del espacio y el menor impacto visual y medioambiental en el entorno.

#### **Artículo 2. Ámbito de aplicación**

1.-Esta ordenanza se aplica a todas las instalaciones de radiofrecuencia con antenas susceptibles de generar campos electromagnéticos en un intervalo de frecuencia de entre 0 Hz a 300 GHz <sup>1</sup> que se encuentren emplazadas en el término municipal.

2- Quedan excepcionadas las antenas catalogadas de radioaficionados que reúnan las características siguientes:

---

<sup>1</sup> Atendiendo a la Recomendación del Consejo de 12 de julio de 1999 relativa a la exposición al público en general a campos electromagnéticos. Diario Oficial nº L199 de 30/07/1999.

- a) Ez dira 250 W-ko potentziara heltzen.
- b) Jarraitasunik gabe transmititzen dute.
- c) Komunikazioetako Idazkaritza Nagusiaren aginduzko baimena dute.
- d) Behar bezala legeztatuta daude.

- a) Sean de potencia inferior a 250w.
- b) Transmitan de forma discontinua.
- c) Disponer de la preceptiva autorización de la Secretaría General de Comunicaciones
- d) Están debidamente legalizadas.

## II. TITULUA

### GARAPEN-PROGRAMA

#### **3. artikulua.- Garapen-programaren komunikazioa.**

1. Instalazioa (oinarrizko estazioak, antenak, konexiorako elementu osagarriak eta beharrezko beste elementu tekniko batzuk) egin edo aldatu nahi izanez gero, baimena eskatzen duen Zieko-ko udalerrirako aurreikusten duen garapen-programa eguneratua aurkeztu beharko du telekomunikazioko operadore bakoitzak.

2. Dokumentu honek nahitaez gaineratu beharko du gaur egun Zieko-ko udalerrian ezarrita dauden eta bertan aurreikusten diren instalazioen sarearen hedapena.

3. Telekomunikazioetako operadoreek eremu jakin bat estaltzeko baterako garapen-planak aurkeztu ahal izango dituzte, bai etorkizuneko teknologien kasuan, bai gaur egungo teknologien kasuan, oraindik ere teknologi hauen sarea hedatu ez bada.

## TÍTULO II

### PROGRAMA DE DESARROLLO

#### **Artículo 3. Comunicación del Programa de Desarrollo.**

1. Cada operadora de telecomunicaciones que tenga la pretensión de instalar o modificar un emplazamiento (estaciones base, las antenas, sus elementos auxiliares de conexión y otros elementos técnicos necesarios) precisará de la presentación de su Programa de Desarrollo actualizado, previsto para el término municipal de Elciego en el que se solicite licencia.

2. Este documento necesariamente contendrá el despliegue de la red actual de instalaciones ya implantadas y aquellas previstas en el término municipal de Elciego

3.- Las operadoras de telecomunicaciones podrán presentar planes de desarrollo conjunto para ofrecer cobertura a una determinada zona, tanto para el caso de tecnologías futuras, como en el de las actuales cuyo despliegue de red aún no haya sido llevado a cabo.

#### **4. artikulua.- Programaren edukia**

Programak<sup>2</sup> ondoko elementuak zehaztu beharko ditu:

a) Sarearen eskema orokorra, hala badagokio, burua, lotune nagusiak eta nodoak kokatuko diren lekua (eremuen arabera) adierazita.

b) Oinarritzko estazio, eskuko telefoniako antena eta irrati-frekuentziako beste elementu batzuen ezarpena.

c) Oinarritzko estazioak eta antenak: izena, kokapenerako proposatzen den aldea, lurralde-estaldura, potentzia, lan-frekuentziak, kanalen kopurua eta bere justifikazio teknikoa.

d) Egindako zerbitzuen eta erabilitako teknologien deskribapena.

e) Udalerrian edo, hala badagokio, udalaz haraindiko esparruan proposatutako irtenbide teknikoaren justifikazioa.

f) Ekipoak ezartzeko eremu berrien aurreikuspena, aurreikusten den estaldura geografikoa justifikatuta.

g) Lanak burutzeko gutxi gorabeherako egutegia.

h) Antenak kokatzeko alternatiba teknikoak.

i) Proposatutako kokapenak eta kokapen alternatiboak jasoko dituen kartografia, UTM koordenatuekin.

#### **Art. 4. Contenido del Programa**

El Programa<sup>2</sup> tendrá que especificar los siguientes elementos:

a) Esquema general de red con indicación, en su caso, de la posible localización (por zonas) de la cabecera, principales enlaces y nodos.

b) Implantación de estaciones base, antenas de telefonía móvil y otros elementos de radiofrecuencia.

c) Estaciones base y antenas: nombre, zona de ubicación propuesta, cobertura territorial, potencia, frecuencias de trabajo y número de canales y su justificación técnica.

d) Descripción de los servicios prestados y tecnologías utilizadas.

e) Justificación de la solución técnica propuesta en el municipio o, en su caso, a nivel supramunicipal.

f) Previsión de las áreas de nueva implantación de equipos justificando la cobertura geográfica prevista.

g) Calendario orientativo de ejecución.

h) Alternativas técnicas de localización de antenas

i) Cartografía con los emplazamientos alternativos y propuestos con coordenadas UTM.

---

<sup>2</sup> Udalak bidezko irizten dion kasuetan, beharrezkoa izango da ondoko bi eduki hauen arteko bereizketa egitea: batetik, zerbitzuetako edo irrati-difusioko operadoreei eskatu beharreko edukia eta, bestetik, sarea hedatzeko beharrezko azpiegiturak ezartzera bereziki zuzentzen diren enpresa edo operadoreei eskatu beharreko edukia, kasu honetan dagozkion zehaztapenak salbuetsiko dira

---

<sup>2</sup> En los casos que el Ayuntamiento lo estime oportuno, sería necesario diferenciar entre el contenido a exigir a las operadoras de servicios o de radiodifusión, y el contenido a exigir a las operadoras o empresas dedicadas exclusivamente a la implantación de infraestructuras necesarias para el despliegue de la red., excluyendo, en este caso, las determinaciones correspondientes

## **5. artikulua.- Telekomunikazio-zerbitzuetarako udal-antolamendua**

Udalak telekomunikazio-zerbitzuen sarean beharrezkoak diren instalazioen kokapena –partekatua edo partekatu gabea– antolatzeko operadore bakoitzaren garapen-programetan biltzen den informazioa erabili ahal izango du, betiere teknikoki eta legez posible bada.

## **6. artikulua.– Garapen-programa eguneratzea.**

1. Garapen-programan biltzen den informazioa eguneratzen denean, Udalari horren berri eman beharko zaio, honek telekomunikazio-zerbitzuen antolamenduan garatzen ari den balizko plangintza egokitu ahal izan dezan. Gaur egungo sareari dagozkion eguneratzeen kasuan gehienez ere 4 hilabeteko epean eman beharko zaio Udalari eguneratzeen berri eta garatzeko aurreikuspenen kasuan gehienez ere urtebeteko epean, ordenantza hau indarrean jartzen denez geroztik.
2. Operadore bakoitzaren garapen-programan etorkizunean egin daitezkeen aldaketak Udalari igorri beharko zaizkio.

## **Artículo 5. Ordenación municipal de servicios de telecomunicación**

El Ayuntamiento podrá utilizar la información facilitada en los Programa de Desarrollo de cada operadora, para ordenar la ubicación, compartida o no, de las instalaciones necesarias en la red de servicios de telecomunicación, siempre que sea posible técnica y legalmente.

## **Artículo 6– Actualización del Programa de Desarrollo.**

1. Para adecuar la posible planificación que esté desarrollando el Ayuntamiento en la ordenación de los servicios de telecomunicación, la actualización de la información contenida en el Programa de Desarrollo debe ser remitida al Ayuntamiento en un plazo máximo de 4 meses en lo referente a la red existente y de 1 año en cuanto a la previsión de desarrollo, a partir de la entrada en vigor de esta ordenanza.
2. Las futuras modificaciones del Programa de Desarrollo de cada operadora deben ser remitidas al Ayuntamiento.

### III. TITULUA

#### UDAL-BAIMENA

##### **7. artikulua.- Baimena eskatzea.**

1- Ordenantza honen xede diren irrati-komunikazioko elementuak instalatzeko eta abiarazteko udal-baimena lortu beharko da, legez ezarritako baimenak eta hirigintza-betebeharrak betetzeaz gain.

2- Baimen honen izapideak egiterakoan instalazioaren ezarpena jarduera-baimenarik behar ez duen jardueratzat hartuko da eta martxoaren 9ko 165/1999 Dekretu autonomikoan arautzen den prozeduraren menpe egongo da; izatez, Dekretu honek otsailaren 27ko 3/1998 Legean edo honen ordezkio araudian aurreikusten den jarduera-baimena lortzeaz salbuetsita dauden jardueren zerrenda finkatzen du.

3- Telekomunikazio-instalazioak ingurumenari dagokionez sentikorrek diren eremuetan ezarri nahi izanez gero, 3/98 Lege Orokorrean edo honen ordezkio araudian jasotzen den ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedura indibidualizatuaren menpe eta Ingurumena babesteko jasotzen diren gainerako betebeharren menpe egon beharko da.

### TÍTULO III

#### LICENCIA MUNICIPAL

##### **Artículo 7. Solicitud de licencia.**

1- Con independencia del resto del cumplimiento de las obligaciones urbanísticas y permisos legalmente establecidas, estarán sujeta a licencia municipal la instalación y funcionamiento de elementos de radiocomunicación objeto de esta ordenanza.

2- Para la tramitación de esta licencia el establecimiento de la instalación será considerada como actividad exenta de la tramitación de licencia de actividad, sometida al procedimiento regulado en el Decreto autonómico 165/1999 de 9 de marzo por el que se establece la relación de actividades exentas de la obtención de la licencia de actividad prevista en la ley 3/1998, de 27 de febrero, o normativa que lo sustituya.

3- El establecimiento de instalaciones de telecomunicación en zonas ambientalmente sensibles estará sometido al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental y el resto de obligaciones recogidas en la ley 3/98 General de Protección del Medio Ambiente o, normativa que lo sustituya.



4- Artikulu honetako 2. atalean jasotzen diren izapideak egiteko, instalazioa eta obrak baimenduko dituen baimena emango da aldi berean. Instalazioa abiarazi aurretik Udalarik jakinarazi beharko zaio instalazioak aurkeztutako dokumentazioan aurreikusten denari eta eskatzen diren neurri osagarriak egokitzen zaiela. Horretarako, instalazio-motaren arabera dagozkion egiaztapen teknikoak gaineratu beharko dira.

5- Udal-baimena eman aurretik ordenantza honetako 3. eta 4. artikuluetan arautzen den instalazioen garapen-programa aurkeztu beharko da, baita aplikatu beharreko araudiaren indarrez beharrezkoak diren baimenak ere.

#### **8. artikulua.- Neurri osagarriak hartzea**

1- Udal Zerbitzu Teknikoek dokumentazio teknikoa egiaztatu ondoren eta aurkeztu ahal izan diren arrazoibideak aintzat hartuta, Udalak neurri osagarriak ezarri ahal izango ditu irrati-frekuentziako instalazioek behar bezala funtziona dezaten.

2- Era berean, ingurunearekin mimetizatzeko eta harmonian biltzeko beharrezkoak diren ekintzak ere ezarri ahal izango dira.

4- Para la tramitación recogida en el apartado 2 de este artículo, se concederá simultáneamente la licencia que autorice la instalación y las obras. Para la puesta en funcionamiento de la instalación deberá comunicarse al Ayuntamiento la adecuación de las mismas a lo previsto en la documentación presentada y las medidas complementarias, en su caso exigidas, adjuntando a tal fin, las certificaciones técnicas que correspondan según el tipo de instalación de que se trate.

5- La licencia municipal solamente se podrá otorgar previa presentación del Programa de Desarrollo de instalaciones regulado en los artículos 3 y 4 de la presente ordenanza y de las autorizaciones, que en virtud de la normativa de aplicación, sean precisas.

#### **Artículo 8. - Adopción de medidas complementarias**

1- Comprobada la documentación técnica por los Servicios Técnicos Municipales y a la vista de las alegaciones que hubieran podido formularse, el Ayuntamiento podrá imponer medidas complementarias para el adecuado ejercicio de las instalaciones de radiofrecuencia

2- Así mismo se podrán imponer las acciones de mimetización y armonización con el entorno que sean necesarias.

## **9. artikulua.- Udala jakinaraztea**

1. Instalazioaren titulartasuna aldatu nahi bada edo telekomunikazioko instalazio irrati-elektrikoetako elementuak eta antenak ordezkatu nahi badira, Udalari jakinarazi beharko zaio.

2. Baimena lortzeko funtsezkoak izan diren ezaugarriak erabat aldatu edo berritu nahi badira, berauek instalatzeko eskatu ziren baldintza berak bete beharko dira.

## **10. artikulua.- Txosten osagarriak**

Udalak erabakia hartzerakoan aintzat hartu beharreko datuak finkatzeko, ezagutzeko eta egiaztatzeko txostenak eskatu ahal izango ditu, espedientearen osatzeko bideratu beharreko egintza gisa<sup>3</sup>.

---

<sup>3</sup> Ildo honetan, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Zerbitzuei loteslea ez den halabeharrezko txostena eska dakieke.

## **Artículo 9. Comunicación al Ayuntamiento**

1. Precisará de la oportuna comunicación al Ayuntamiento las situaciones de cambio de titularidad de la instalación, sustitución de antenas y elementos de instalaciones radioeléctricas de telecomunicación.

2. La completa sustitución o reforma de las características que hayan sido determinantes para la autorización estarán sujetos a los mismos requisitos que su instalación.

## **Artículo 10. Informes complementarios**

El Ayuntamiento podrá requerir como un acto de instrucción complementario en el expediente, informes para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales deba pronunciarse la resolución<sup>3</sup>

---

<sup>3</sup> En este sentido, puede ser solicitado informe preceptivo y no vinculante, a los Servicios de Sanidad de Gobierno Vasco.

## **11. artikulua.- Dokumentazioa.**

Baimena eskatzerakoan dokumentazio teknikoa gaineratu beharko da. Dokumentazio tekniko honen gutxieneko edukia I. eranskinean finkatuko da.

## **Artículo 11. Documentación.**

La solicitud de la licencia irá acompañada de documentación técnica cuyo contenido mínimo se establece en el Anexo I

### IV. TITULUA

#### **INSTALAZIOAREN BALDINTZAK**

## **12. artikulua.- Irizpide orokorrak**

Izaera orokorrez irradi-frekuentziako instalazioek ondoko irizpideak bete beharko dute:

- 1- Merkatuan dauden teknologien artean ikus-eraginik txikiena eta ingurumenaren gainean eraginik txikiena sortzen duen teknologia erabili behar da.
- 2- Ingurunearekin bateragarriak izan behar dute, ikus-eragina eta ingurumenaren gaineko eragina murriztuz.
- 3- Ordenantza honen II. eranskinean jasotzen diren integrazio arkitektonikoari eta segurtasunari buruzko arauak bete beharko dituzte<sup>4</sup>.

---

<sup>4</sup> Udal bakoitzak eranskinetan definitu ahal izango ditu integrazio arkitektonikoko baldintzak. Dena den, aukeratutako soluzioak teknikoki justifikatu beharko dira eta Udal Zerbitzuek ezar daitezkeen arauen arabera onartu edo baztertu ahal izango dituzte.

### TÍTULO IV

#### **CONDICIONES DE INSTALACIÓN**

## **Artículo 12. Criterios generales**

Con carácter general las instalaciones de radiofrecuencia deberán:

- 1- Utilizar aquella tecnología disponible en el mercado que comporte el menor impacto visual y ambiental, así como la preservación de la salud de las personas
- 2- Resultar compatibles con el entorno minimizando un impacto visual, y/o medioambiental.
- 3- Cumplirán las reglas referidas a la integración arquitectónica y seguridad contenidas en el anexo II de esta Ordenanza<sup>4</sup>

---

<sup>4</sup> Cada Ayuntamiento podría definir en los anexos las condiciones de integración arquitectónica. No obstante, y en todo caso, se justificará técnicamente las soluciones adoptadas que serán admitidas o no por los Servicios Municipales atendiendo a las reglas que pueden ser establecidas.

### **13. artikulua.- Kokatzeko irizpideak**

1.- Zieko-ko udalerrian telekomunikazio-instalazioetarako eskatutako balizko kokapenak finkatzerakoan, indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen irizpidez gain, ondokoak irizpideak ere hartu beharko dira aintzat:

1) Urbanizaten ezinezko lur eremuek duten kategorian kokatu beharko dira soilik.

2) Antena igorlearen irradiatze-noranzko nagusian gutxienez 10 metroko tartea gorde beharko da pertsonak sartzeko aukera duten edo sar daitezkeen edozein eremu librekin. Nolanahi ere, Europako Kontseiluak jendea orokorrean eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruz 1999ko uztailaren 12an emandako Gomendioan jasotzen diren edo, hala badagokio, Administrazio aginpidedunek ondorio hauetarako ezartzen duten araudian aurreikusten diren potentzia-dentsitateko gehienezko balioak ezin izango dira gainditu. Kokatze bateratuen kasuan ere irizpide hau bete beharko da.

### **Artículo 13. Criterios de emplazamiento**

1.- Las posibles ubicaciones de las diferentes instalaciones de telecomunicación solicitadas en el municipio de Elciego, atenderán, además de a los criterios que establezca la legislación vigente, a la aplicación de los siguientes :

1.- Solamente podrán emplazarse en terrenos cuya calificación sea la de suelo no urbanizable.

2) Deberá respetarse una distancia mínima de 10 metros en el sentido principal de radiación de la antena emisora con cualquier zona de libre y/o posible acceso de las personas. En todo caso, no podrán superarse los valores máximos de densidad de potencia recogidos en la Recomendación del Consejo de Europa de 12 de julio de 1999, relativa a la exposición al público en general a campos electromagnéticos, o, en su caso, a los que se prevean por la normativa que, a tal efecto, se dicte por las Administraciones competentes. Este criterio deberá cumplirse, igualmente, para el caso de emplazamientos compartidos.

#### **14. artikulua. Kokapenen eta elementuen erabilera partekatua**

- 1- Udalak, hirigintza, ingurumen edo paisaiaren arloko arazoiek justifikatuta eta interesatuei entzun ondoren, kokapenak partekatzeko obligazioa ezarri ahal izango du, arrazoi teknikoen edo juridikoengatik ezinezkoa denean izan ezik edota bereizita instalatzen diren instalazioen kasuan baino ikus-eragin handiagoa edo ingurumenaren gaineko eragin handiagoa izan daitekeen kasuetan izan ezik.
- 2- Urbanizatu ezinezko lurrian erabilera partekatuko azpiegiturak instalatu beharko dira –teknikoki ezinezkoa denean izan ezik– operadore desberdinek adierazten dituzten azpiegituren arteko tartea 150 metrokoa baino gutxiagokoa denean.
- 2- Kokapenaren elementu nagusiak (sarbide berriak, euskarri-dorreak, tresna osagarrien etxolarako hartu beharreko lursaila, antenak eta abar) partekatzeko konpromisoa operadoreek sinatu beharreko hitzarmenean islatu beharko da eta hau Udalarari helarazi beharko zaio.
- 3- Nolanahi ere, mota honetako instalazioetarako goi-tentsioko energia elektrikoaren hornidura bateratu egin beharko da.

#### **Artículo 14. Uso compartido de emplazamientos y elementos**

- 1- El Ayuntamiento de manera justificada por razones urbanísticas, medioambientales o paisajísticas, y dando audiencia a los interesados, podrá establecer la obligación de compartir emplazamiento salvo que se justifique su imposibilidad en base a razones técnicas o/y jurídicas, o se considere que el impacto ambiental o visual pueda ser superior al de las instalaciones que se instalen separadamente.
- 2- En el suelo no urbanizable, existirá, salvo imposibilidad técnica, la obligación de crear infraestructuras únicas de utilización compartida cuando la distancia entre las infraestructuras indicadas de las distintas operadoras sea inferior a 150 metros.
- 2- El compromiso de compartir los principales elementos del emplazamiento (nuevos accesos, torres de apoyo, parcela de ocupación con la caseta de instrumentos complementarios, antenas, etc) quedarán reflejados en acuerdo suscrito por las operadoras afectadas y de los que se dará traslado al Ayuntamiento.
- 3- Será necesario en todo caso, la unificación de suministro de energía eléctrica en alta tensión para este tipo de instalaciones.

### **15. artikulua.- Gainerako instalazio-operadoreei beste kokatze baten berri emateko prozedura**

- 1- Enpresa operadore batek, erreferentziazko garapen-programen arabera, Telekomunikazioko Oinarrizko Estazio bat instalatzeko baimena eskatzen duenean, Udalak gainerako operadoreei jakinaraziko die. Gainerako operadoreek hogeieguneko epea izango dute erabilera partekaturako interesa azaltzeko, baimena eskatzen duen operadoreak komunikazio hau egin dela egiaztatzen duenean izan ezik.
- 2- Enpresa operadoreen batek erabilera partekaturako interesa azaltzen badio Udalari, aldeek hogeieguneko epea izango dute horretarako baldintzak askatasunez finkatzeko.
- 3- Aurreko hogeieguneko epea amaitu eta gainerako enpresa operadoreek erabilera partekaturako interesa azaltzeko adierazpenik egin ez badute edo interesa adierazi badute baina operadoreen arteko harremanetan akordiorik lortzen ez bada, Udalak baimentzen den kokapenaren erabilera partekatua bermatzeko betebeharra erabaki dezake.

### **Artículo 15. Procedimiento de comunicación al resto de operadoras de instalaciones de una nueva implantación**

- 1- Cuando una empresa operadora solicite licencia para la instalación de una Estación Base de Telecomunicaciones, de acuerdo a los programas de desarrollo a los que se hace referencia, el Ayuntamiento lo notificará al resto de operadoras concurrentes. Será otorgado un plazo de veinte días a las restantes para que manifiesten su interés en la utilización compartida, salvo que la operadora solicitante acredite que esta comunicación ya ha sido realizada.
- 2- En el supuesto de que alguna empresa operadora manifieste su interés en la utilización compartida lo comunicará al Ayuntamiento otorgándose a las partes un plazo de veinte días naturales para que fijen, libremente, las condiciones para ello.
- 3- Si transcurrido el anterior plazo de veinte días y no se hubiese producido manifestación alguna para la utilización compartida por parte de las restantes empresas operadoras o si, producida esta manifestación, las operadoras interesadas no llegaran a acuerdo alguno, la resolución del Ayuntamiento podrá recoger la obligación de garantizar el uso compartido del emplazamiento que se autoriza.

## V. TITULUA

### IKUSKAPENA ETA KONTROLA

#### **16. artikulua.- Instalazioen kontserbazioa eta segurtasuna.**

- a) Baimenen eta emakiden titularrek bere gain hartuko dute hauek segurtasun eta kontserbazioeko egoera egokietan mantentzearen ardura.
- b) Udal-zerbitzuek kontserbazio-egoera eskasa antzematen dutenean, irregulartasunaren berri eman beharko diete baimenaren titularrei, jakinarazten zaienetik epe jakin baten barruan bidezko neurriak har ditzaten. Pertsonentzako edo ondasunetarako arriskutsuak izan daitezkeen egoerak antzematen direnean, berriz, bidezko neurriak berehala hartu beharko dira, indarrean dagoen legeriak ezartzen duenaren arabera.
- c) Jarduera behin betiko bertan behera uzten denean edo erabiltzen ez diren instalazio horretako elementuak bertan behera uzten direnean, baimenaren titularrak edo instalazioen jabeak irratikomunikazioko ekipoak edo elementuak eta instalazio hori eusten duen eraikuntza edo eraikina desegin eta kentzeko ekintzak egin beharko ditu, baita lursaila instalazio hau instalatu aurreko baldintzetan uzteko beharrezko ekintzak ere.

## TÍTULO V

### INSPECCIÓN Y CONTROL

#### **Artículo 16.- Conservación y seguridad de las instalaciones.**

- a) Los titulares de las licencias y de las concesiones se encargarán de que éstas se mantengan en perfecto estado de seguridad y conservación.
- b) Cuando los servicios municipales detecten un estado de conservación deficiente, lo comunicarán a los titulares de la licencia para que en un plazo a partir de la notificación de la irregularidad adopten las medidas oportunas. Cuando existan situaciones de peligro para las personas o los bienes, las medidas deberán adoptarse de forma inmediata, de acuerdo con lo que dispone la normativa vigente.
- c) El titular de la licencia o el propietario de las instalaciones deberá realizar las actuaciones necesarias para desmantelar y retirar los equipos de radiocomunicación o sus elementos al estado anterior a la instalación de los mismos, el terreno, la construcción o edificio que sirva de soporte a dicha instalación en el supuesto de cese definitivo de la actividad o de los elementos de la misma que no se utilicen.

## **17. artikulua.- Kautelazko neurriak salbuespenez hartzea.**

Salbuespen gisa eta zigor-espedienteari hasiera eman aurretik, Herri Administrazioek zigor-izaera izango ez duten ondoko kautelazko neurriak finkatu ahal izango dituzte eta ordenantza honetan arau-hauste gisa zehazten diren gertakarietako edozeinen ustezko arduradunari neurri hauek har ditzan exijitu ahal izango diote:

- a) Obrak edo jarduerak etetea
- b) Aparatuak edo ekipoak zigilatzea
- c) Ingurumenarekiko kaltea zabal dadin eragotziko duen zuzenketa, segurtasun edo kontroleko beste edozein neurri.

## VI. TITULUA

### ARRISKUAK BERMATZEKO ETA ASEGURATZEKO TRESNAK

## **18. artikulua.- Arriskuak aseguratzea**

1- Baimena eskatzen duten operadoreak ordezkatzeko dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek aseguru-tresnen titulartasuna justifikatu beharko dute; alabaina, aseguru hauek instalazio irrati-elektrokoak ezartzeak ondasunetan eta pertsonengan izan ditzakeen ondorioei behar bezala erantzuteko aukera eman beharko dute.

## **Artículo 17. Adopción excepcional de medidas cautelares.**

Excepcionalmente, y con carácter previo a la incoación de expediente sancionador, las Administraciones públicas podrán adoptar o imponer al presunto responsable de cualquiera de los hechos tipificados como infracciones en la presente ordenanza de la adopción de las siguientes medidas cautelares que no tendrán carácter sancionador:

- a) Suspensión de las obras o actividades
- b) Precintado de aparatos o equipos
- c) Cualquiera otra medida de corrección, seguridad o control que impida una posible extensión del daño ambiental.

## TÍTULO VI

### INSTRUMENTOS DE GARANTÍA Y ASEGURAMIENTO DE RIESGOS

## **Artículo 18: Aseguramiento de riesgos**

1- Las personas físicas o jurídicas que representen las operadoras solicitantes de licencia, deberán justificar la titularidad de instrumentos asegurativos que permitan responder adecuadamente a las posibles afectaciones a los bienes o a las personas generadas por el establecimiento de las instalaciones radioeléctricas.



2- Aurreko artikulua ondo etarako, ondoko tipologiaren artean hautatu ahal izango da:

a) Udalarentzat behar beste bermatu beharko diren autoaseguru-sistemak.

b) Aseguruaren merkatuan kontratatutako berriazko aseguruak, bai erantzukizun zibilar dagokionez, bai beren ondasun eta instalazioei dagokionez.

3- Modalitate hauetako edozeinetan aukeratutako tresnak eskatzaileak udalerrian bere titulartasunpean dituen instalazio guztiak estali beharko ditu.

### **19. artikulua.- Instalazioak kentzea eta ingurunea leheneratzea.**

1- Pertsonen osasunerako arriskua antzeman dela eta instalazioen funtzionamendua premiaz gelditu behar bada, baimenaren titularrari lan hori geldiaraztea eskatuko zaio. Nolanahi ere, instalazioak kendu behar badira, ingurunea leheneratu egin beharko da. Arriskua Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren txosten bidez finkatuko da.

2- A los efectos del artículo anterior, se podrá optar por las siguientes tipologías:

a) Sistemas de autoseguro que deberán ser garantizados suficientemente para el Ayuntamiento.

b) Seguros específicos contratados en el mercado asegurador, tanto en materia de responsabilidad civil como respecto de sus propios bienes e instalaciones.

3- En cualquiera de estas modalidades, el instrumento elegido cubrirá todas y cada una de las instalaciones de las que sea titular el solicitante en el término municipal.

### **Artículo 19: Retirada y restitución del entorno.**

1- Ante un riesgo para la salud de las personas, que exigiera la urgente paralización del funcionamiento de las instalaciones, se requerirá al titular de la licencia para la realización de este trabajo. En todo caso la retirada de las instalaciones conllevará la restitución del entorno. La determinación del riesgo se realizará mediante informe del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

## VII. TITULUA

### ZIGOR-ARAUAK

#### **20. artikulua.- Aplikatu daitezkeen araudia**

Antolamendu honen ondoriozko arau-hausteak indarrean dagoen legeriaren arabera zigortuko dira (30/1992 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko 2/1998 Legea).

### ALDIBATERAKO XEDAPENAK

#### **LEHENA.- Baimenik gabeko irrati-komunikazioko instalazioak.**

Bidezkoak diren zigorren kalterik gabe, Alkateari irrati-komunikazioko instalazio bat ordenantza honetan arautzen den aginduzko baimenik gabe funtzionatzen ari dela jakinarazten zaionean, Alkateak honela jardungo du:

- a) Instalazioak ordenantza honetan biltzen diren baldintzak betetzen baditu, instalazioa legezatzeko epe jakin bat emango zaio; nolahi ere, ez da sei hilabetetik gorakoa epea izango.
- b) Sektore honi dagokionez indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik edo ordenantza honetan ezartzen dena ez betetzeagatik instalazioa legezatzetik ez badago, instalazioa itxi egin beharko da, betiere interesatuari entzun ondoren.

## TÍTULO VII

### RÉGIMEN SANCIONADOR

#### **Art. 20: Régimen aplicable**

Las infracciones derivadas de la presente ordenación serán objeto de sanción conforme a la legislación vigente (Ley 30/1992 y especialmente la ley 2/1998 del Parlamento Vasco sobre potestad sancionadora).

### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

#### **PRIMERA.- Instalaciones de radiocomunicación sin licencia.**

Sin perjuicio de las sanciones que procedan, cuando el Alcalde tenga conocimiento de que una instalación de radiocomunicación está funcionando sin la licencia pertinente, regulada en esta ordenanza, efectuará las siguientes actuaciones:

- a) Si la instalación cumple los requisitos contenidos en esta ordenanza se concederá un plazo, que no podrá ser superior a seis meses para proceder a su legalización.
- b) Si no pudiese legalizarse por incumplir la normativa sectorial vigente y lo establecido en esta ordenanza, deberá procederse a su clausura con previa audiencia al interesado

**BIGARRENA.- 1999ko uztailaren 12ko Kontseiluaren (EB) Gomendia.**

Eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari dagokionez, irratikomunikazioko instalazioek bete egin beharko dute emisio elektromagnetikoen arloan administrazio aginpidedunek ezar dezaketen araudia. Araudi hau promulgatzen den arte jendea orokorrean eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruz 1999ko uztailaren 12an Kontseiluak (EB) emandako Gomendia aplikatuko da.

**HIRUGARRENA: Jadanik instalatuta dauden Telekomunikazioko Oinarrizko Estazioak**

Jadanik instalatuta dauden telekomunikazioko oinarrizko estazioak batera agertzen direnean, arian-arian elementuak partekatzeko hitzarmenak edo akordioak finkatu beharko dira.

**LAUGARRENA: Baimendutako instalazioak ordenantzara egokitzea.**

Ordenantza honen xede diren eta aurretik Udalaren baimena duten eta funtzionatzen ari diren instalazioek urte bateko epea izango dute ordenantza honetara egokitzeko.

**SEGUNDA.- Recomendación del Consejo (UE) de 12 de julio de 1999.**

Respecto a la exposición de los campos electromagnéticos, las instalaciones de radiocomunicación deberán cumplir la normativa que en materia de emisiones electromagnéticas puedan establecer las administraciones competentes. En tanto en cuanto esta normativa no sea promulgada será de aplicación la Recomendación del Consejo (UE) de 12 de Julio de 1999 relativa a la exposición del público en general a campos electromagnéticos.

**TERCERA: Estaciones Base de Telecomunicaciones ya existentes**

Cuando haya concurrencia de estaciones base de telecomunicaciones ya existentes se deberán establecer progresivamente Convenios o Acuerdos para compartir elementos.

**CUARTA: Adaptación de las instalaciones autorizadas a la ordenanza.**

Las instalaciones objeto de esta ordenanza previamente autorizadas por el Ayuntamiento y en funcionamiento, tendrán un plazo de un año para su adaptación a la presente ordenanza.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **BIGARRENA: Garapena**

Ordenantza hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, Udalak erregistro berezi bat sortuko du. Bertan Zieko-ko udalerrian jadanik dauden telekomunikazio-zerbitzuak igortzeko eta hartzeko instalazio guztiak erregistratu beharko dira, baita hauetan egin daitezkeen aldaketak ere.

### **AZKEN XEDAPENA**

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 eta 65.2. artikuluetan ezartzen denari jarraituta, ordenantza hau Udal Osoko Bilkurak onartu beharko du eta, ondoren, Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean oso-oso argitaratu eta 15 egunetara jarriko da indarrean. Aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean indarrean egongo da ordenantza.

## **DISPOSICIONES ADICIONALES**

### **SEGUNDA: Desarrollo**

En el plazo de un año, contado a partir de la entrada en vigor de esta ordenanza, el Ayuntamiento creará un Registro Especial en el que se inscribirán todas las instalaciones y de emisión y recepción de servicios de telecomunicación existentes y, en su caso, eventuales modificaciones en el término municipal de Elciego.

### **DISPOSICIÓN FINAL**

De conformidad con lo establecido en los artículos 70.2 y 65.2 de la Ley 7/1985 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local, la presente ordenanza entrará en vigor a los 15 días de su publicación completa en el Boletín Oficial del Territorio Histórico, una vez aprobado por el Pleno de la Corporación y regirá en tanto no se acuerde su modificación o derogación.

## **I. ERANSKINA<sup>5</sup>**

### **TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOETARAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOAK**

#### **1- INSTALAZIOEN EGIAZTAGIRI TEKNIKOAK**

- Eraikinak instalazioaren gainkarga jasan dezakeela egiaztatzen duen egiaztigiri teknikoak; edozein motatako proiektuko egitura-errefortzurik egin behar izanez gero, hau ere teknikari aginpidedun batek sinatu beharko du.
- Ekipoak eta aparatuak aplikatzen zaizkien zehaztapan teknikoekin bat datozela egiaztatzen duten onarpen-egiaztigiriak.
- Dagokion telekomunikazio-zerbitzua egiteko gaitzen duen bidezko tituluaren jabe izatearen egiaztigiria, aplikatu daitekeen araudi orokorrean eta sektoreko araudian xedatutakoaren arabera. Edota eskabidea egiteko bidezko tituluaren duen pertsona batek eskatzailea behar beste ahalitzen duela jasotzen duen egiaztigiria.

## **ANEXO I<sup>6</sup>**

### **DOCUMENTACIÓN TÉCNICA PARA INTALACIONES DE TELECOMUNICACIÓN**

#### **1-CERTIFICADOS TÉCNICOS DE LAS INSTALACIONES**

- Certificado técnico mediante el que se acredite que el edificio puede soportar la sobrecarga de la instalación; si fuera necesaria la realización de cualquier tipo de refuerzo estructural de proyecto estará suscrito, asimismo, por técnico competente.
- Certificados de Aceptación que acrediten la conformidad de los equipos y aparatos con las especificaciones técnicas que les sean de aplicación.
- Acreditación de disponer del correspondiente título habilitante para la prestación del servicio de telecomunicaciones de que se trate de acuerdo con lo dispuesto en la normativa general y sectorial que sea de aplicación, o que el solicitante se encuentre suficientemente apoderado por quién disponga del título habilitante para realizar la solicitud.

---

<sup>5</sup> Eranskin honen edukia Udalak baimenen izapideak egiteko –batera egiteko edo bereizita egiteko– beharrezko dokumentazioa eskatzearen menpe egongo da.

---

<sup>6</sup> El contenido de este anexo estará condicionado por la decisión municipal de requerir toda la documentación necesaria para la tramitación simultánea o no de licencias.

## 2- PROIEKTUAREN EDUKIA

Proiektuak ondoko edukia izan beharko du:

- a) Enpresa eskatzailearen datuak:
  - I. Sozietatearen izena eta IFZ.
  - II. Helbide osoa
  - III. Legezko ordezkariak.
  
- b) Oinarritzko proiektua, teknikari aginpidedunak idatzia. Proiektuak jarduera deskribatzeko behar beste informazioa bildu beharko du eta emisioen iturria eta emisioen mota eta magnitudea adierazi beharko du.
  - I. Jarduerak eraginpean egon daitekeen ingurunean duen eragina.
  - II. Sektorean indarrean dagoen araudia betetzen dela justifikatzea.
  - III. Erradiazio ez ionizatzaileko emisioak saihesteko eta kontrolatzeko teknikak.
  - IV. Emisioak kontrolatzeko sistemak.
  
- c) Instalazioaren datuak.
  - I. Instalazioen ezaugarri teknikoak jasoko dituen orria. Ondoko datuak jasotzeko beharko dira beti:
    - Kokapenaren altuera.
    - Estaldura-eremuak.
    - Emisioaren frekuentziak, emisioaren potentziak eta polarizazioa.
    - Modulazioa.
    - Instalatu beharreko antenen motak.

## 2- CONTENIDO DEL PROYECTO

El contenido del proyecto debe ser el siguiente:

- a) Datos de la empresa solicitante:
  - I. Denominación social y NIF.
  - II. Dirección completa
  - III. Representación legal.
  
- b) Proyecto básico, redactado por una persona técnica competente, con información suficiente sobre la descripción de la actividad, con indicación de las fuentes de las emisiones y el tipo y la magnitud de éstas.
  - I. Incidencia de la actividad en el medio potencialmente afectado.
  - II. Justificación del cumplimiento de la normativa sectorial vigente.
  - III. Las técnicas de prevención y control de emisiones de radiación no ionizante.
  - IV. Los sistemas de control de las emisiones.
  
- c) Datos de la instalación.
  - I. Hoja donde se señalen las características técnicas de las instalaciones. En todo caso se deben hacer constar los datos siguientes:
    - Altura del emplazamiento.
    - Áreas de cobertura.
    - Frecuencias de emisión, potencias de emisión y polarización.
    - Modulación.
    - Tipos de antenas a instalar.

- Antena isotropiko batekiko irabaziak.
  - Irradiatze-sistemaren jasotze-angelua.
  - Uhin-sortaren estaldura.
  - Sorta irradiatzailearen antenen altuera.
  - Irradiatze-sorta nagusiko potentzia-dentsitatea ( $W/cm^2$ ), antenarekiko neurtze-tarteak zehaztuta.
- II. Antenaren kokapena jasotzen duen planoan, UTM koordinatuetan eta gehienez ere 1:2000 kartografian, lauki-sarea izan beharko du. Planoan ingurumen-arloko ebaluazioan eragina duten azpiegiturak grafiatu beharko dira.
- III. Eraikin mugakideen kokapen erlatiboa adieraziko duen 1:200 eskalako planoan.
- IV. Indarrean dagoen hiri-plangintzaren arabera instalazioak hartzen duen lurraren sailkapenaren eta kalifikazioaren egiaztagiria.
- V. Diseinuaren norabide guztietan gehienezko irradiatze-potentzia isotropiko baliokidea W-tan grafikoki irudikatuko duten planoak, plano hauek eskala egokian egin beharko dira.
- VI. Azpiegitura beste operadore batzuekin partekatuta erabiltzeko aukeraren justifikazio teknikoan.
- Ganancias respecto a una antena isotrópica.
  - Ángulo de elevación del sistema radiante.
  - Cobertura del haz de ondas.
  - Altura de las antenas del haz radiante.
  - Densidad de potencia ( en  $w/cm^2$ ) en el haz principal de radiación, especificando las distancias de medición respecto a la antena.
- II. Plano de emplazamiento de la antena expresado en coordenadas UTM, sobre cartografía de máximo 1:2000 con cuadrícula incorporada. En el plano se han de graficar las infraestructuras que tengan incidencia sobre la evaluación ambiental.
- III. Plano a escala 1:200 que exprese la situación relativa a los edificios colindantes.
- IV. (Certificado de la) clasificación y calificación del suelo que ocupa la instalación según el planeamiento urbanístico vigente.
- V. Planos a escala adecuada que expresen gráficamente la potencia isotrópica radiada equivalente (PIRE) máximo en W en todas las direcciones del diseño.
- VI. Justificación técnica de la posibilidad de uso compartido de la infraestructura por otras operadoras.

### 3. MEMORIA

Memoriak ondoko edukia izan beharko du:

a) Egituraren ikuspuntutik eta eraikinarekiko ainguren ikuspuntutik instalazioen egonkortasunaren kalkulu justifikatzaileak, dagozkion eraikuntza-planoak ere jaso beharko dira.

b) Ezarri beharreko ekipoen tipologiari eta ezaugarriei dagokienez teknologiarik onena erabiltzearen justifikazioa, hala ikus-eragina eta ingurumenaren gaineko eragina ahalik eta gehien murrizteko.

c) Jatorri atmosferikoko deskarga elektrikoen aurka babesteko eta beste instalazio batzuekin interferentzia elektromagnetikoak gerta daitezzen saihesteko hartutako neurri zuzentzaileen deskribapena eta justifikazioa.

d) Ikus-eraginaren dokumentazio fotografikoa, grafikoa eta idatzia; dokumentazio honetan argi eta garbi jaso beharko da instalazioak finkari dagokionez duen kokalekua eta finkaren beraren kokapena: instalazioa ezarriko den ingurunearen deskribapena, hedadura, forma, materialak eta beste ezaugarri batzuk. Oinezkoaren ikuspuntutik instalazioak duen ikus-eraginaren simulazio grafikoa ere gaineratu beharko da.

e) Instalazioa segurtasun-baldintza ezin hobeetan mantentzeko konpromisoa edo aitortpena.

f) Instalazioa mantentzeari buruzko dokumentazioa.

g) Segurtasunari buruzko azterlana.

### 3. MEMORIA

El contenido de la memoria deberá ser el siguiente:

a) Los cálculos justificativos de la estabilidad de las instalaciones desde un punto de vista estructural y de fijaciones al edificio con los planos constructivos correspondientes.

b) Justificación de la utilización de la mejor tecnología en cuanto a la tipología y características de los equipos a implantar para conseguir la máxima minimización del impacto visual y ambiental.

c) La descripción y justificación de las medidas correctoras adoptadas para la protección contra descargas eléctricas de origen atmosférico y para evitar interferencias electromagnéticas con otras instalaciones.

d) Documentación fotográfica, gráfica y escrita, justificativa del impacto visual, que exprese claramente el emplazamiento y el lugar de colocación de la instalación en relación con la finca y la situación de ésta: descripción del entorno dentro del cual se implanta, extensión, forma, materiales y otras características. Deberá aportarse simulación gráfica del impacto visual desde la perspectiva de la visión del viandante.

e) Declaración o compromiso de mantener la instalación en perfectas condiciones de seguridad.

f) Documentación relativa al mantenimiento de la instalación.

g) Estudio de Seguridad.



## II. ERANSKINA

### INSTALAZIOKO SEGURTASUN- ARAUAK

#### Gutxieneko tartekak

##### I- Eraikinaren ertzean dauden antenak.

Antenak eraikinaren ertzean jarri behar direnean eta bertarako sarbidea instalazioaz kanpoko pertsonekin partekatu behar denean, gutxienez 2 metroko tartea utzi beharko da antenaren beheko ertzaren eta eraikinaren azalaren elkarzutaren artean.


## ANEXO II

### NORMAS DE SEGURIDAD EN LA INSTALACIÓN

#### Distancias mínimas

##### I. Antenas situadas en el borde de la edificación.

Para la colocación de las antenas en el borde de la edificación cuyo acceso sea compartido con personal ajeno a la instalación, deberá respetarse una distancia mínima de 2 metros entre el borde inferior de la antena y la perpendicular de la superficie de la edificación.



## **II- Eraikinaren estalkiaren gaineko antenak.**

Antenak eraikinaren estalkian jarri behar direnean eta estalkia instalazioaz kanpoko pertsonen sarbidearekin partekatu behar denean, eraikinaren ertzarekiko tartearekin proportzio zuzenean gehituko den gutxienez 2 metroko altuera errespetatu beharko da.

## **III- Norabide orotako antenak**

Debekatuta dago, izaera orokorrez, antenaren irradiatzearen norabide nagusian 10 metro baino gutxiagoko erradioan antenaren instalazioaz kanpoko pertsonak sartzea. Nolanahi ere, sarrera-eremuan ezin izango dira jendea orokorrean eremu elektromagnetikoen eraginpean egoteari buruz Europako Kontseiluak 1999ko uztailaren 12an emandako Gomendioan edo, hala badagokio, administrazio aginpidedunek ondorio horretarako egiten duten araudian jasotzen diren potentzia-dentsitateko gehienezko balioak gainditu.

Honako ordenantza hau 2001.ko Abuztuaren 8an izandako Udal Batzarrean onartua berri zen eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo hamabost egunetatik aurrera sartuko da indarrean, berezko eraldaketa edo derogazioa onartu artean indarrean segituko duelarik.

VºBº

ALKATEA IDAZKARIA

## **II. Antenas sobre la cubierta de la edificación.**

Las antenas que compartan la cubierta de la edificación con acceso de personas ajenas a la instalación, deberán respetar una altura mínima de 2 metros incrementados en proporción directa a la separación del borde de la edificación.

## **III- Antenas omnidireccionales**

Queda prohibido, con carácter general, el acceso de personal ajeno a la instalación de la antena, en un radio inferior a 10 metros en el sentido principal de radiación de la antena. En todo caso, no podrán superarse en el área de acceso de los valores máximos de densidad de potencia recogidos en la Recomendación del Consejo de Europa de 12 de Julio de 1999, relativa a la exposición al público en general a campos electromagnéticos, o, en su caso, a los que prevean por la normativa que, a tal efecto, se dicte por las Administraciones competentes.

La presente ordenanza fue aprobada inicialmente por el Ayuntamiento Pleno en su sesión celebrada el día 8 de Agosto de 2001 y entrará en vigor quince días después de su publicación íntegra en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Alava, permaneciendo en vigor hasta que se apruebe su modificación o derogación expresas.

Vº Bº

EL ALCALDE EL SECRETARIO  
***La presente Ordenanza fue íntegramente publicada en el BOTA nº 122 de fecha 26.10.01***